



BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektu honen ideia lurzoru jasangarri eta errentagarri bat sortzea da eta honekin batera energia aurreztea eta sortzea da eskaintzen dizuguna.



Guk sortuko dugun lurzoruarekin energia modu errez eta errentagarri batean sortzea lortuko dugu. Horregatik, produktu honen ezaugarriak besteengandik bereizten gaitu:

merkatuan bakarra gara, hau da, momentuz ez dago guk pentsatu dugun produktua lantzen duen beste enpresarik. Bestaldetik, dirua aurreztu ahalko duzu gurekin, nahiko aproposak direlako kalitate-prezioari begira. Lurzoru hauek erosten badituzu, planeta zainduko duzu, naturari kalterik egin gabe sortuko baitu energia.



Era berean, produktua Espainiatik garraiatzeko erraztasuna daukagu, talde berezi bat daukagulako gure lurzoria nahi duzun tokian instalatu ahal izateko. Gainera, gure garraioak ahal den neurrian, trenez edo itsasontziz egingo dira, ekologikoak eta gutxi kutsatzen dutenak dira.

Diseinu ugari eta desberdinak eskainiko ditugu, azkenean bezeroaren gustukoa aukeratzeko eta baita diseinua pertsonalizatua ere izan daiteke ingurunera egokitu ahal izateko. Leku desberdinetan jartzeko eskuragarritasuna izango duzu. Kalitatez materialekin egindakoak eta denbora asko apurtu gabe ematen dutena. Lur zoria instalatzeko, zerbitzuak ematen ditugu.



Horretaz gain, gure produktuen salmenta eta gure zerbitzuen kontratazioa gure web orrialdean izan ahalko da eta gure zerbitzuen balorazioak eta iritziak eman ahal izango dira.



Gure lurzorua kalitatea daukala seguratasuna izan ahal izateko, 6 hilabete arte apurtzen edo arazoren bat ematen badizue gure lan taldeak beste berri bat eskaini edo instalatutakoa konponduko dizue. Gainera, gure zerbitzuak nahiago duzuen ordutan izan ahalko duzue, prezio baxu bat ordainduz eta gure web orrialdean ordua eta lekua idaztearekin nahiko da. Web orrialdean bidalketa-lokalizatzaile bat izango duzue zure eskaera aurkitzeko eta ikusteko non dagoen.



Hasierako plangintza, Espainan bakarrik salduko dugula adostu genuen, baina denbora joan ahala, produktuak ondo saltzen badira, mundu osotik salduko ditugu.